

## **EROSKIK ETA DEUSTUKO INGENIARITZA FAKULTATEAK LANKIDETZA TEKNOLOGIKOKO HITZARMENA SINATU DUTE**

- **Lankidetzarako esparrua ezarri du 2019ra arte, I + G + b-ko jarduerak sustatzeko, bi erakundeen artean jakintzaren transferentzia egiteko eta EROSKIko profesionalen eta Fakultateko ikasleen lanbideko gaitasunak garatzeko**
- **Datu kopuru handia prozesatu behar duten bezeroarentzako soluzio berriak sortzera bideratuko dira proiektuak**
- **EROSKIk plan estrategiko berria definitzeari ekin dio lehiakortasunera bideratuta, eta sei ardatz nagusietako bat pertsona-taldean gaitasunak sendotzea da**

**Bilbao, 2016ko azaroaren 2a.-** [EROSKIk](#) eta Deustuko Unibertsitateko [Ingeniaritza Fakultateak](#) hitzarmen bat sinatu dute lankidetzak teknologikoa sustatzeko, bezeroa ardatz hartuko duten soluzio berriak ezartzeko eta langileak teknologia horietan trebatzeko. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du hasiera batean, eta Ingeniaritza Fakultateko dekanoa Asier Perallosek eta EROSKIko idazkari nagusi Mikel Larreak sinatu dute.

EROSKIk eta Deustuko Unibertsitateak jakintzaren transferentzia sustatuko dute bi erakundeen artean, bezeroarentzako soluzio berriak sortzeko datu kopuru handiak prozesatzea eskatzen duten negozio aukera eta ereduak ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Berrikuntzako proiektu horiek garatzeko, partaidetzako programa gurutzatuak egingo dira: alde batetik, EROSKIko profesionalak Deustuko Ingeniaritza Fakultateko teknologia esparruko prestakuntza programetan parte hartu ahal izango dute; eta, bestetik, EROSKIko profesionalak Deustuko Unibertsitateko irakasle-gonbidatu gisa eskaintako prestakuntzetan parte hartuko dute Fakultateko ikasleek.

Bi erakundeen arteko jakintzaren transferentziarako akordio horrek, halaber, laneko informazioa eta metodologiak partekatze esparru egituratu bat ezartzen du, ikerketa, berrikuntza eta garapeneko proiektuak (I + G + b) garatzeko diziplina ugariko taldeetan. Proiektuak aberastu eta osatu ditzaketen beste erakunde batzuk sartzea ere jasotzen du lankidetzak hitzarmen horrek.

*"Proiektu estrategiko bat da, epe luzerako lehiako abantaila jasagarri berriak eraikitze jarduera-esparrua ezartzen duena, profesional-taldean trebakuntza oinarrituta, horixe baita Plan Estrategikoaren lehentasunetarikoa bat datozen urteetarako",* adierazi du Mikel Larreak.

"Gure ikuspuntutik, akordio hau gure Hezkuntzako Lankidetzaren sendotzen jarraitzeko aukera bat da, Unibertsitate-Enpresa lankidetzaren bidez, EROSKI bezalako erreferentziako Ekonomia eta Gizarte eragile batekin. Gure ikasleek euren prestakuntza hobetzeko proiektu errealean lan egiteko aukera izatea; eta, hartara, EROSKIri, bereziki, eta gizarteari, oro har, balioa ematea da gure helburuetariko bat", azpimarratu du Ingeniaritza Fakultateko dekanok.

### **Deustuko Unibertsitateari buruz**

Deustuko Unibertsitatea gizarte-ekimeneko zentroa da; Bilbon eta Donostian ditu egoitzak; 130 urteko esperientzia du, eta ekarpen handia egiten dio garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoari.

Ingeniaritza Fakultatearen eta DeustoTehen bitartez, teknologia arloko ikerketak egiten ditu, bereziki, teknologiak osasunean, iraunkortasunean, garraioan, fabrikazioan eta segurtasunean aplikatzeko, eta oinarri teknologikoko enpresa berriak sustatzen ditu.

Nazioarteko oihartzuna da Deusturen beste nortasun-ezaugarri bat, bai proiektuen aldetik eta bai munduko 60 herrialdeetako ikasleak erakartzen dituelako (ikasleen %15).

### **EROSKIri buruz**

EROSKI Espainiako banaketa kooperatiba taldeetan garrantzitsuenak da eta erreferentziako operadorea da Galizian, EAEn, Nafarroan, Katalunian eta Balear Uharteetan. 1.877 saltokiko merkataritza-sarea du, supermerkatu, hipermerkatu eta cash&carry-tan; baita gasolindegia, optikak, bidai agentziak, lurrindegia eta kirol ekipamenduko dendak ere. 7 milioi bazkide-bezero baino gehiago ditu, eta 33.870 kooperatibako bazkide eta langile.

Plan estrategiko berri bat zehazten ari da une honetan datozen lau urteetarako. Dagoen merkatuetako bakoitzean lehiatzea da helbururik nagusia, bazkide-bezeroa estrategiaren ardatz bihurtzea eta pertsona-taldeen gaitasunak sendotzea.

*Argibide gehiagorako:*

<b>EROSKI</b> Komunikazio korporatiboko zuzendaria Oscar González Uriarte, Tel.: 946 211 214 <a href="mailto:comunicacion@EROSKI.es">comunicacion@EROSKI.es</a> Prensa bulegoa - Iparraldeko kontseilariak Ziortza Beristain / Eburne Izquierdo Tel.: 944 158 642	<b>DEUSTUKO UNIBERTSITATEA</b> <b>Ingeniaritza Fakultatea</b> Prensa kabinetea Miriam Portell, Tel.: 944 139 243 <a href="mailto:mportell@Deusto.es">mportell@Deusto.es</a>
---	---